



ALEA

arabako aldizkaria

NATI LOPEZ DE MUNAIN
**"LANA, POLITIKA ETA
FAMILIA UZTARTZEA
DA TRABA NAGUSIA"**





Arabako idazleen eskutik sortutako testuak
lurraldeko **aurpegi ezagunen ahotik** ezagutzeko,

irakurraldia

ekitaldia ospatuko dugu
abenduaren 3an, 10:00etan
Oihaneder Euskararen Etxean.

Gurekin bat egin nahi al duzu?

Bertaratzeko asmoa baduzu, info@alea.eus
helbidera idatzita baieztatzea eskertuko genizuke.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



artepan



ALEA 215

2019-11-15 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA: ESTITXU

UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Gazteei ikerkuntza zabaltzeko asmoa bete du Zientzia Asteak.
- 8 **Protagonista.** Nati Lopez de Munain, Burguko alkatea eta Arabako Diputazioan Ingurumen zuzendaria.
- 12 **Iritzia.** Iñaki Lazkano, 'Itsasikarak'.
- 13 **Iritzia.** Aintzane Urrutia, 'Elkar ulertu'.
- 14 **Sarean.** #Estatukolpea
- 15 **Iruditan.** Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren aurkezpena.
- 16 **Iritzia.** Mendialdeko gurasoak, 'Argi hitz egiten dugu'.
- 17 **Iritzia.** 'Angelus, Diaz de Olanoren margolana', Eduardo Arriolabengoa.
- 18 **Politika.** Espainiako Hauteskundearen emaitzak, Araban.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Euskara.** Kantari ospatuko da asteburuan, Gasteizen.
- 24 **Kultura.** Tristtan Murgi, musikaria.
- 26 **Gure bazterrak.** Delikako haitzartea.
- 28 **Denbora-pasak eta irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarite

Juanma Gallego

Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Iñaki Lazkano, Aintzane Urrutia.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Zientzia jardunaren erakusleiho

Euskal Herriko Unibertsitateak urtero antolatzen duen Zientzia Asteak lehen lerrora ekartzen ditu ikerkuntzaren alorrean egiten diren lanak. Besteak beste, memoria historikoa, mikrokosmosa edota diagnosiak egiteko txip adimentsuak izan dira Bibat museoak erakutsi dituen gaietako batzuk.

Testua eta argazkiak: **Juanma Gallego.**

Laborategia kalera atera. Hori eskatzen dute askotan ikertzaileek, haien eguneroko lana gizarteari erakusteko. Eta zeregin horretan EHUK antolatutako Zientzia Astea aspaldi bilakatu da ezinbesteko erreferentzia. Arabaren kasuan, Bibat museoan hartu dute aterpe ikertzaileek. Haien tramankulu batzuk unibertsitatetik atera eta horien bitartez egiten duten lana interesa duen edonoren esku jarri dute joan den astearen amaieran. Arras zaila da aukeratzea *ezagutzaren menu* bitxi horretan dauden aukeren artean; hortaz, zientzialariek egin ohi duten modu berdinean, erakusmahaien atzean dauden proposamenen artean nolabaiteko laginketa bat egin behar izan du ALEAk.

Zientzia eta humanitateak uztartzen dituen *Arkeologia eta giza eskubideak* izeneko txokoan, esaterako, hasiera batean mundu urrunak diruditen arloak jorratu dituzte. EHUKo arkeologo Josu Santamarinak nabarmendu duenez, "oso hurbilekoak diren gatazkak" landu dituzte bertan. Batez ere 1936ko gerra eta diktadura da haien ikerketa gaia, eta, zehazki, Amurrio eta Urduña artean dagoen San Pedro mendiko aztarnategian aurkitutakoak dituzte hizpide. Bertan, Espainiako Gerra Zibilaren garaian frontea egon zen. Garai latz hori irudikatzeko bidea ematen duen *atrezzo*a ere prestatu dute. Gerra



frontea izanda, bala zorro ugari aurkitu dituzte San Pedron, eta horien analisisan oinarrituta irakaspen baliagarriak ateratzeko moduan egon dira. "Lortu ditugun bala zorro horiek ez dira bakarrik indarkeria baten seinale, indarkeria horren jabeen erakusle baizik. *Espainiako Gerra Zibil* gisa aurkezten zaigun arren, munizioaren jatorria aztertzean ondo ikusten da %3 besterik ez dela Espainian sortua. Gehiena Alemaniatik, Britaina Handitik, AEBetatik edota Sobietar Batasunetik dator". Santamarinaren esanetan, "argi ikusten da 1936ko gerra funtsean Bigarren Mundu Gerraren laborategi bat izan zela".

Arkeologoek egin ohi duten detektibe-berreraiketaren erakusle, aztarnategian aurkitu duten Manuel Mogrobojo milizianoaren txapa erakutsi du adituak. "Txapa galdu zuen, baina ez zen bertan hil, eta haren ibilbide osoa jarraitzeko aukera izan dugu".

Ospe txarreko zomorrotxoak

Guda frontetatik mikrokosmosaren lubakietara salto eginez, Ainhoa Arrieta eta Aitor Atxaerandio Farmazia Fakultateko doktoregaiek *Mikromundua* ezagutzearen zirrara kutsatzeko ardura hartu dute. "Badakizu, bakterioak, birusak, onddoak... horiek dira guk aztertzen ditugunak, eta normalean kristoren beldurra sortzen dute, gaixota-

Arkeologia, mikrobiologia, neurozientziak edota ingeniari-tza... arlo ugari jorratu dituzte Bibaten jarritako txokoetan.

**"MIKROORGANISMOEK
BELDURRA SORTU OHI
DUTE, BAINA GEHIENAK
EZ DIRA BATERE
KALTEGARRIAK"**

AINHOA ARRIETA, MIKROBIOLOGOA

sunen abiapuntu direlakoan", azaldu du Arrietak. "Baina kontuan izan behar da gaitzak eragiten dituztenak kopuru txiki bat besterik ez direla. Gehienekin elkarbizitza bat dugu, eta batzuk gure gorputzetan ere bizi dira, lasai asko". Bakterioei aurre egin behar zaienean antibiotikoen tresna badagoela gogoratu du Arrietak, baina, gaiaren bueltan, gero eta ardura gehiago sortzen duen arazoa ere ekarri du gogora: "Erresistentziak sortzen ari dira bakterioen artean, penizilina aurkitu zenetik antibiotikoen erabilera txarra egiten ari garelako". Horregatik, antibiotikoak arduraz eta medikuen aginduen arabera erabiltzeko beharra azpimarratu diete txokora hurbiltzen direnei. Mikroorganismoen inguruko beldurra ez ezik, oro har zientziaren alorrean beldurrak uxatzeko beharra gaineratu du Atxaerandiok. "Horregatik gaude hemen, bereziki umeei, gazteei eta familiei mezu hau helarazteko".

Txikitasuna helburu

EHUko Microfluidics Cluster taldeko Enrique Azuaje eta Raquel Catalan adituak ere mundu txikiari begira ari dira, baina, haien kasuan, teknologia txikiagoa lortzea da erronka. Haien taldekoa diziplinartekotasunaren adibide bikaina da; Catalan kimikaria da, eta Azuaje farmazia arlokoa, baina taldean biologoak eta fisikariak ere badaude. "Guztiok batzen gaituen helburu nagusia da fluidoekin harremana duten teknologia txikien ekoizpena", azaldu du Azuajek. *Lab-on-a-Chip: laborategia oso bat zure esku-azpian* izena eman diote txokoari. Ideia nagusia da laborategi baten funtzioak gailu txiki batean txertatzea. Haurduntza-testak, glukosa mailak neurtzeko gailuak edo alkoholimetroak dira horren adibide. "Halakoetan, gailu berean lagina jasotzen da, analisisa egiten da eta emaitza lortzen da. Bada, gure helburua da orain garatuta ez dauden arloetan antzeko gailuak garatzea. Bereziki diagnosiaren alorrean, zelulen analisisira eta ingurumenaren arlora ere zabaltzen ari gara pixkanaka". Mahaian dituzte hainbat adibide. Euskarriek dagokienez, askotarikoak dira: papera, kristala, plastikoa edota 3D inprimaketa bidez sortutakoak... "Pentsa ezazu hemen erakusten ditugunak oso handiak direla, ondo ikusteko, baina guk beti jotzen dugula txikira". Azaldu dutenez, arrazoi ugari dago maila txikira jotzeko. "Batetik, zelulak, molekulak eta horrelako estrukturak oso txikiak dira, eta horietara ahalik eta gehien egokitu behar dugu, efizientzia handitu aldera. Bestetik, tamaina txikitzean, erabiltzen dugun likidoaren bolumena ere txikiagoa izan daiteke, eta horrek ere hainbat abantaila dakartza: kostu txikiagoak sortzen dira, eta laginak hartzeko orduan ere inbasioa gutxitzen da. Azkenik, fluidoaren mugimendua hobeto kontrolatzeko aukera gehiago ditugu horrela".



Parral

taberna

menu begetarianoa eta gosariak
asteaz zehar - asteburuetan razioak
asteartero aktibazio kulturalak

PARRALTABERNA@GMAIL.COM
SAN FRANCISCO XABIER KANTOIA 4
TLF 945270433 GASTEIZ-ARABA



Arlo biosanitarioan eta ingurumen arloan dute arreta jarrita, baina horrelako gailuek etorkizun oparoa izango dute seguruenera, besteak beste, kanpo espazioan.

Bertsozientzia

Txokoena ez da zientzia zabaltzeko erabiltzen den formatu bakarra. Hainbat tailer eta txango ere egin dituzte; eta ohiko erakusketekin osatu dute astea. Erromatarren garaiko etxe barruko giroa eta ohiturak ere XXI. mendera ekarri dituzte! Baina horrelako planteamendu berritzaileen artean, agian *Jakinduriek mundua erreko dau* izeneko ekitaldia da originalena. Hainbat urteko ibilbidea badu ere, aurtien lehen aldia izan da zientzia eta bertsolaritza uztartzen dituen ekimena Arabara ekarri dutena, Kultura Zientifikoko Katedraren eskutik. Oskar Gonzalez kimikariak, Bittor Rodriguez nutrizionistak eta Onintze Salazar meteorologoak parte hartu dute, eta haiek landutako gaien inguruan bertsotan aritu dira Jone Uria eta Julio Soto. Pozik azaldu da Gonzalez bertan aurkitutako giroarekin. "Euria egin arren, jende ugari animatu da etortzera". Gaiei dagokierenez, Rodriguez elikadura ohiturei buruz eta barazkien kontsumoa handitzeko beharrari buruz aritu da, eta Salazar eguraldiaren soinuei buruz, tartean "euria, trumoiak, elurraren isiltasuna. Horiei guztiei azalpen zientifikoa eman zien", azaldu du Gonzalezek. Kimikariaren kasuan, pigmentu toxikoei buruz hitz egin du: berun zuria eta bermiloia. "Adibide moduan Vermeerren *Neska Perlarekin* koadro ospetsua erabili dut. Horrela, alkimia, artea, mitologia eta astronomia lotu ditut". Bertsolarien esku geratu zen ondorengo hitzen jokoa, besteak beste, Trump edota Gasteiz bezalako hitzak eguraldiko soinuekin lotzeko. ■■■

Amurrioko San Pedro mendiaren inguruko arrastoak baliatu dituzte Espainiako Gerra Zibila eta Francoren diktaduraren garaia bisitariei azaltzeko.



"Emakumeon lana ez da gizonek daramaten ildoak errepikatzea"

NATI LOPEZ DE MUNAIN ALZOLA BURGUKO ALKATEA ETA FORU INGURUMEN ZUZENDARIA

Politika, lana eta familia uztartzen eskarmentu handiko emakumea da Nati Lopez de Munain; ataka zailak eta momentu gozoak bizi izan ditu Burguko alkateak hamasei urtez, eta esperientzia hori transmititzeko eta emakume hautagiak laguntzeko Virginia Wolf Basqueskolan aholkulari bezala ari da.

Testua eta argazkiak: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute.**

Euskal Herriko hiriburuetakoko alkate guztiak gizonak dira, eta gauza bera gertatzen da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ahalak nagusiekin. Araban, azken udal hauteskundeetan ostean, 53 udalerrietako alkate gehienak (%73,55) gizonak dira, eta soilik 14 (%28,45) emakumeak. Egoera ikusirik, eta emakume politikoei babesa emateko, Virginia Woolf Basqueskola sortu zuten Eudelek eta Emakunde 2018an. Urrian, Gasteizen, emakume hautagai berriei harrera ekitaldia egin zieten. Bertan izan da Burguko lehen emakumezko alkate Nati Lopez de Munain Alzola (Ixona, 1960). Bost legegintzaldi egin ditu Lopez de Munainek alkate-karguan, eta orain, gainera, Ingurumen foru zuzendaria da. "Politika gogorra da, une txar asko dago, eta askotan ezin dituzu arazo guztiak konpondu edo ez denek nahi duten bezala. Baina aurrera egiten duzunaren sentsazioa duzu, eta hori pozgarria da".

Zerk eraman zintuen alkate-kargua hartzera?

Sei herrik osatzen dute Burgu, eta ni horietako batekoa naiz, Ixonakoa, bertan bizitza osoa eman dut. Une jakin batean, EAJren zerrendan sartzeko

aukera eskaini zidaten; zerrenda plurala izan zedin, herri guztietako ordezkariak nahi zituzten. 1999an sartu nintzen eta zinegotzi bezala ateratu nintzen. Hori da udal politikaren munduarekin dudak lehen kontaktua. 2003an, berriz, alkate aukeratu ninduten. Lehen aldian zen emakume batek alkate kargua hartzen zuela Burgun.

Nola izan zen lehen esperientzia?

Positiboa izan da. Zailtasun gehigarriak ere ez nuen sentitu. Zailtasun gehiago dago, noski, emakumeak normalean ez garelako esparru horretan egon, eta bidea ireki behar da, erreferenterik ez dugun arlo bat da. Politikaren eremuan sartu berriak gara emakumeak, duela urte gutxi, eta eremu horretan egon ez izanak zaildu egiten du dena. Normalean, gizonak betetzen duten rol bat hartzea zailtasun bat da, baina eraikitzen joan behar duzun prozesu baten parte bat da. Emakumeok gizarte mugimenduetan eta herriko elkarteetan parte hartu dugu, baina udal politikan ez genuen esperientziarik.

Emakumea izateagatik deseroso sentiarazi zaituzte inoiz? Kritika matxistak jasan al dituzu?

Ez. Egia esan, urte hauetan zehar ez dut hori sentitu. Gainera, hain zuzen ere, lehen urteetan,



hirigintzaren gai dezente zegoen, niretzat oso ezezaguna zen alor bat. Emakumeok ez dugu horrelako esperientzietarako aukerarik izan, eta gai hori ikasi eta ezagutu behar izan nuen, eta askotan egoera berriei aurre egin. Errealitate horrek ere lagundu egiten dizu, bost legegintzalditan, egoera horietan hobeto moldatzen.

Nola konpentsatu duzu esperientzia falta?

Zailtasunak identifikatzen jakitea izan da, jendearekin asko hitz egitea eta Udala ere pertsona guztiei irekitzea. Herritarrek jarduerak sustatu ditzaten bultzatzea, ez kontsumitzen den produktu bat ekoiztea edo egitea, baizik eta proiektuak garatzea, jendea apur bat protagonista izatea eta bere proiektuen buru izatea. Horrela sortu dira kirol klubak, familientzako jarduera mota ezberdinak, batez ere ingurumenarekin lotutako gai asko. Baratzeko ekologiko didaktiko bat dugu, Natura Sarean gaude... Burgun jarduera asko egin ditugu eta udalerriko pertsonen bizitza erraztu dezaketenez gauzak identifikatzen joan gara. Bada, beharrak zeintzuk diren atzeman eta baliabideak martxan jartzen joan gara, oso masa kritiko txikiarekin hasieran, partaide oso gutxi

zegoelako. Une horietan faltan botatzen nuen beste emakume batzuekin esperientziak partekatu ahal izatea, beste udalerrri batzuekin edo beste errealitate batzuekin. Hor bai falta izan zait gerora Basquesolatik abiatu dugun sarea.

Zer da Basqueskola?

Emakume politikarientzat prestakuntza-eskola gisa sortu da, hain zuzen ere, politikan ibilbide hori ez dugulako izan. *Coaching*-ari eta lidergoari buruzko hainbat ikastaro egiten dira, eta Euskal Herriko politikaren esparruan emakumeen sare bat definitzeko lana egiten dugu. Gauzarik interesgarriena da kolore politiko guztietako emakumeek parte hartzen dugula, eta berdin gaude hiriburuetakoak edo Burgu bezalako herri txikiak. Aberastasun hori ezberdinen artean partekatzea da gure helburua, eta elkarri laguntzea zailtasunei ahalik eta modurik leunenean aurre egiteko eta hautetsi berriei politikan sarbidea errazteko.

Nola laguntzen diezue?

Aholkularitza proiektu berri bat martxan jarri dugu politikan aritu garen emakumeak eta hautetsi berriak esperientziak partekatzeko. Oso garrantzitsua da. Izan ere, lehenik eta behin, gure

ezagutza ez da galduko; edozein esparrutako pertsona arlo publikotik pribatura erretiratzen denean, esperientzia jakin asko eta asko mozten dira eta zerotik hasi behar gara. Babestuta sentitzeak ere laguntzen du askotan, segurtasuna ematen du; ziurrenik ez dugu konponbide magikorik izango eta irtenbidea ere ez, baina oso bakarrik sentitzen zara hasieran, eta konfiantza ematen du zailtasunak gainditzeko aukera ikusteak. Politikaren aldeko urrats hori atseginagoa izan dadin nahi dugu, eta hainbat egoera ekidin ahal izateko modua da. Espazio erakargarriago bat sortu behar dugu, zailtasunak izango dituen, eta, era berean laguntza handiagoa eskainiko duena.

Emakume politikariek dituzten zailtasunak identifikatu dituzue, beraz? Zeintzuk dira nagusiak?

Lan profesionala politikarekin eta familiarekin uztartzea behin eta berriz errepikatzen da. Sarritan erabaki behar izaten duzu politikan jarraituko duzun edo denbora asko eskatzen dizun familia-egoera bat duzun. Basqueskolan jaso dugun datu bat da emakumeek denbora gutxiago ematen dutela politikan, gizonak baino lehenago uzten dutela; denboren gaia da hor gakoa.

Zaila da aldaketak egitea?

Emakumeak presio horrekin gaude beti, familiaren eginkizun kultural hori barneratuta dugulako, zaintzaileak gara eta horrela bizi izan dugu. Gure lekua hartu ahal izateko, gizonezkoek atzera egin behar dute. Guk espazioaren %50 okupatzea litzateke justuena, gizartearen isla baita hori, baina horrek esan nahi du beraiek okupatzen duten zati bat utzi egin behar dutela.

Baikor zara emakumeek politikaren espazioak hartzeko egin dituzten urratsen inguruan?

Prozesua motel doa, baina aurrera doa. Nire balorazioa, alde batetik, positiboa da, datuek erakusten dutelako gero eta emakume gehiago dagoela ardura politikoetan; legealdi honetan zinegotzien kopurua handiagoa izan da. Baina egia da, baita ere, ardura handiagoko postuak betetzeko zailtasunak daudela; alkateen kopurua pixka bat igo da, baina ez zinegotzien kopurua bezainbeste. Erantzukizun politikoa maila altuagoetara iristen garenean, argazkiak bakarrik ikusi behar ditugu: gehienak gizonezkoak dira. Dena den, erreferenteak sortzen ari gara eta emakume gazteak politikan sartzea bultzatzen jarraitu behar dugu, erreleboa dagoela bermatu behar dugu, eta emakumeak politikan egotea.

Agenda aldatzeko edo praktika feministak martxan jartzeko balio izan du emakumeen parte-hartzeak?

Bai, emakumeen ikuspegitik beharrak jasotzen, sentitzen eta ikusten ditugun neurrian, kontuan hartzen ditugu. Emakumeen beharretan pentsatzen badugu, haien mugei eta beharrei ere erantzuna emango diegu. Udalek batzuetan ez dituzte emakumeen beharrak eta begiradak barneratzen, eta, beraz, nik uste dut beharrezkoa dela beti emakumeak esparru horietan egotea, premiak azter daitezkeelako, neurriak jar daitezkeelako, berdintasuna sustatzeko eragina izango duten erabakiak hartzen direlako.

Politika egiteko modua aldatu da?

Hori borondate kontua da. Niretzat oso garrantzitsua da, eta guztiontzat da garrantzitsua,

"EMAKUMEOK PRESIO HORI DUGU BETI, FAMILIAREN EGINKIZUN KULTURALA BARNERATUTA DUGU"

"EMAKUME POLITIKARIENTZAT PRESTAKUNTZA ESKOLA BEZALA SORTU DA BASQUESKOLA"

gizonentzat eta emakumeentzat, baina batez ere emakumeentzat; kontzientzia hartzea gure egitekoa ez dela soilik gizonak daramaten lana edo ildoak errepikatzea, kontua ez dela gauzak egiteko modu maskulinoa errepikatzea. Prestatu behar gara eta ikusi behar dugu zertan hobetu daitekeen, zer behar diren, eta modu horretan aldatuko da espazio publikoan eta pribatuan dugun presentzia.

Burguko Udala aitzindaria izan da Araban berdintasun plana martxan jartzen.

Gasteiz ondoren, Burgukoa izan zen berdintasun plan bat egin zuen lehen udal txikia, eta teknikari baten laguntza teknikoa kontratatu zuen lehen udala. Horrek bere eragina izan du, aurrerapen bat egin dugu, eta dagoeneko onartzen ez diren eta normaltzat hartzen ez diren gauza jakin batzuk daude. Berdintasun gaiak lantzen badira, molde asko hausten dira eta ezagunak ez diren bide asko irekitzen dira. Lan horrek ere ahalbidetu du gure Kuadrilla izatea berdintasun plan bat egin duen lehena. ■■■

"Modu partekatuagoan kudeatu behar da ura"

Foru Aldundian Ingurumen saileko zuzendari berria zara. Bateragarria da alkatetzarekin ala utzi behar izango duzu?

Horretan ari naiz. Ez nuen aurreikusten Diputazioan sartzea, eta orain ikusten ari gara nola jarraitu dezakegun. Ez daukat erabakita zer egin, baina, tira, egia da udalerrri batean hainbeste urte egon ondoren lan asko eginda dagoela, eta gainera udal taldea oso inplikaturik dago, ondo ezagutzen dituzte gaiak.

Zergatik onartu zenuen kargu berria?

Aukera hori eskaini zidaten, eta esparrua gustatzen zait. Izan ere, Burgu aitzindaria izan da baratze ekologiko didaktikoak antolatzen, konpostatzeko hondakin organikoak kudeatzen eta baso-uharteak babesteko proiektuetan. Nire prestakuntza ez da ingurumen



E.U.

zientzien esparrukoa; psikologoa naiz, eta bizitza osoan lan egin dut gizarte zerbitzuetan, haur babesgabeen arretan, hain zuen ere. Baina, beste alde batetik, politikaren esparrutik ingurumen gaiak asko landu ditut. Oso ezaguna den eremu batera iritsi naiz, eta uste dut urteetako esperientziari esker ekarpenak egin ditzakedala.

Zeintzuk dira Ingurumen sailaren ardatz nagusiak?

Gai nagusia, eta oso serio hartu behar dena, klima-aldaketara egokitzea da. Kudeaketa jasangarriaren alorrean, berriz, hondakinen tratamendua dugu, eta Araban oso garrantzitsua den uraren inguruko gaia. Betidanik, erakunde oso txikiek egin dute uraren kudeaketa gure lurraldean, eta Europako araudi berriekin ezinezkoa izango da horrela jarraitzea. Modu partekatuago eta globalago batean egin ahal izateko, Urbide Partzuergoa sortu da, lurralde osoan uraren kalitatea bermatzeko eta ondo kudeatu ahal izateko, gure uraren erabilerak ez dezala arrasto negatiborik utzi. Uraren zikloa ondo mugatzea oso garrantzitsua da. Halaber, biodibertsitatea zaintzea eta ez galtzea izango dira lehenetsiak, eta natura-guneak eta nekazaritza modu koherentean eta batez ere modu jasangarrian kudeatzen jarraitzea. ■■■

Unioaren 30etik
Nafar hegoaldeko uza
euskarari puzka
azkenaren 20ra

**AGER
ALDIA**

dek **ERRI GORA**



betikoa
BELTZA
50€

60€
BERDEA
ekologikoa



berezia
ZURIA
70€

SUSTATU EUSKALGINTZA NAFARROA HEGOALDEAN
SASKIEN BALIOAREN %25 BIDERATU DA ZONALDEKO IKASTOLEI,
SORTZENI ETA AEK-RI LAGUNTZERA ETA, GAINERA, 'AGER VASCO-
NUM'EAN EUSKARA PLAZARA ATERATZERA DATORREN EKIMEN
BERRIA ABIAN JARTZERA.

Itsasikarak



IÑAKI LAZKANO
EUSKARA TEKNIKARIA

Duela urte batzuk ezagutu genuen hitzaren esanahia eta geroztik denon ahotan ibili da modu batera edo bestera. Bere jatorrizko esanguran ezbeharra eta hildako ugari eragin izan dituen arren, gugandik gertuago itxaropenerako aldarri bilakatu zaigu hitz hori.

Izan ere, Espainiako lurraldeetan, eta hiriburuan batez ere, erreka eta ibaietako urak oso nahastuta eta zikin datozen une hauetan, Herrialde Katalanak bustitzen dituzten Mediterraneo iparraldeko urek harro eta sendo astintzen dute kostaldea.

Hain gogor ezen Pirinioak ukitu, jo eta Euskal Herriko kostaldera iristeko gai ere izan diren. Pentsa nolakoa izan den erauntsia!

Egunotan Madrilgo Gorteetan Francoren hilotza ere musugorrituko luketen jarrera lotsagarriak ikusten ditugun bitartean, periferietan azaldu da esperantza, duintasunaren babeslekua. Eta VOX-ekoen kurrinkak gero eta ozenagoak diren hauetan, *#TsunamiDemocratic* mugimenduaren haize eta ekintza ausartek garbituko dute airea, zabalduko dizkiote ateak demokraziari.

Bien bitartean, badugu Espainiako presidente berria aukeratzeko aurreakordioa, antza; babes nahikorik ez dute, ordea. Euskal Herrietatik gomendioa Madril aldeko sasi-agintariei: normalean periferietan, bazterretan, sortutako astinduak zentroari ere eragiten dio, eta denbora kontua izaten da eragina somatzea. Memoria, demokrazia eta duintasuna hobeto gordetzen eta elikatzen direnez zentrotik urrun, benetan balore horiek bere jardunbide politikoaren muinean izan nahi dituenak begira beza ezkerretara eta behera, iparraldera eta ekialdera, bereziki. Egokiago eta zuzenago egingo du bere bidea.

#TsunamiDemocratic katalanentzat "martrèmol" eraldatzailea izan daitekeen bezala, ni neu Kantauriko itsasikara euskaldunen esperoan ibiliko naiz, itsasikara matxinoei lotuko natzaio. ■■■

**NORMALEAN
PERIFERIETAN
SORTUTAKO
ASTINDUAK ZENTROARI
ERE ERAGITEN DIO**

Elkar ulertu



AINTZANE URRUTIA
INFORMATIKARIA

Lotsaz sartzen da oraindik argitasuna gelan, goiz da. Kilimak nabaritu ditut besoan, leuntasunez ferekatzen duzu, eta poliki-poliki, esnatu egin naiz. Begiak ireki, zureak bilatu, "egun on" esan, irribarre egin eta muxu luzea eman diogu elkarri. Laztantzeari utzi gabe, norabide berria hartu du zure eskuak; nire klitoriaren bila joan da. Nik gozamen bera bueltatu nahian zure zakila bilatu dut; gorputza kiribildu eta oihu egin duzu. Bada, euri tanten erritmora, plazerrean murgildu gara elkarrekin.

Sexua izan da bai, baina desiotik, irrikatik, grinetik, leratik, desiratik eta irritsetik eratorritakoa ez ezik, borondatea, errespetua, oreka eta maitasuna nabarmendu dira bertan. Mundu desberdinetakoak gara bai, ezberdintasun ugari dugu bai, baina primeran ulertzen dugu elkar. Aspaldi egin genuen horretarako hautua, beti izan dugu borondatea, horixe izan da gure jomuga beti; elkar ulertzea.

Politikan ere ezinbestekoa da elkar ulertzea, baina zaila izaten da horretarako borondaterik ez dagoenean. Aukeratua izateak dakarren erantzukizunari muzin egin eta gizartearen beharrak eta arazoak konpontzea lehenetsi beharrean, norberaren edota laguntxoan nahi propioak lehenesten ditugunean gainera, ezinezkoa. Eta nago, horrelaxe jokatzeko delako gaur egungo politikan. Tamalez, aurrekaririk ez duen gizarte eta kultura noraezean goaz eta herria hondora doan bitartean, eroso ikusten ditut politikariak beraiei jauregietan.

Aristoteles filosofoak zioenez, gizakia berez da izaki soziala, bizirauteko besteen beharra dauka, ezaugarri horrekin jaio eta bizitzan zehar garatu egiten du. Batek daki Sanchez eta Iglesiasek bata besteari behar hori non ikusi duten orain. Azken hauteskundeek ekarri duten kolore dantzak egoera okertu besterik ez du egin. Gainera, beldurra diodan indar ultraeskuindarrak lehen baino botere gehiago dauka orain. Hori da lortu dena, *a por ellos* kantatu egiten duten horiek, *ellos* ez den ororen aurka egiteko lehen baino legitimoago sentitzea.

Igandean gero elkar ulertzeko zioak asko dira, baina lehen ere baziren. Jendarteak behar hori dauka, baina apirilean ere bazuen. Ez naiz politikan aditua, baina badakit gizarteak aurrera egiteko galdu duen denbora eta dirua ez direla bueltatuko. Aldiz, entzunez eta irakurritz bakarrik ezaguna dudan hori bueltatuko ote den beldur naiz. ■■■

**'ELLOS' EZ DEN
OROREN AURKA
EGITEKO LEHEN BAINO
LEGITIMOAGO
SENTITZEA LORTU DUTE**

SAREAN

@ESTITXUUGARTE

#EstatuKolpea

Hamahiru urtez Bolivia gobernatu ostean, Mexikon asiloa hartu behar izan du Evo Morales agintariak, oposizioak eta indar armatuek –armadak eta Poliziak– estatu kolpea eman eta gero. AEBetako gobernuak estatu-kolpearen atzean egon daitekeela zabaldu dute hainbat analista politikok; eta, are gehiago, Donald Trump presidenteak Venezuelako eta Nikaraguako gobernuak ohararazi die haientzako "seinale bat" dela Bolivian gertatu dena. Igandean, azaroaren 10ean, dimisioa ematera behartu zuten agintari indigenista. Azalpenak eman zituen Moralesek orduan: "Gizartera bakea itzultzea nahi dugu. Talde oligarkikoek demokraziaren kontra konspiratu dute, eta ondorioa herritarren eta Poliziaren estatu kolpe bat izan da. Min handia eragin dit gertatu denak". Hiru egunez ezkutatuta egon eta gero, Mexikoko hegazkin ofizial batean eraman zuten Boliviako presidente ohia. ■■■

**ALBERTO ERREA**

@albertoerrea2

Bolivian demokrazia litatu eta herriaren kontra litigatzen ari dira, eta hango litioa hizpide. Kasualitatea ez, kausalitatea.

**GARI BERSALUZE**
@kalaportu

Hemen hedabideek estatu kolpea dimisioarekin mozorrotzen duten bitartean, Bolivian demokrazia muturreraino defendatzeko prest daude Evoren aldekoak: "Ahora sí, guerra civil".

**PEDRO ZUBEROGOITIA**
@pedrozuberogoit

Egungo politikaren ezaugarri bat: ia inork ez du kanpo-politika aipatzen –ez bada, Venezuela bezala, botere mediatikoei nahi duten gaia, jakina–. Bolivian gertatu dena Txile 73 edo Argentina 76 da eta hemen ia denok isilik...

**NB**
@negukobaratza

Estatu kolpea Bolivian. Herri mugimendu sendorik gabe jai dugu, hemen edo han.

**IÑIGO SANTXO**
@sakinekanziz

Evo: Herriaren hazkunde ekonomikoaren sustatzailea, dibertsitate kultural eta etnikoaren zaindaria, desjabetuen aliatua... Ziklo politiko luze baten amaieran gaude, krisi ekonomiko mundiala ate joka dagoenean.

**MANOLI**
@Manoli14353940

EHko internazionalistok Evoren aurkako estatu kolpea salatzen dugu. Aski da! Abya Yalako herriak tinko, garaipenera arte!



Euskal Eskola Publikoa, 'Hazitik gora!'

Euskal Eskola Publikoaren 29. jaiak badu leloa: *Hazitik gora!*. Bastidako herri ikastetxean asteazkenean eskaintako agerraldian azaldu dute Arabako Errioxako ikastetxe publikoen garrantzia nabarmendu nahi dutela ekainaren 7an egingo duten jaiarekin, bizitzen ari diren transformazio prozesuak aitortuz eta gizarteratuz: "Hiriburutik urrun egon arren, eta Errioxako muga, gainontzeko ikastetxe publikoak bezala elementu ezinbestekoak dira herritar guztiei kalitatezko irakaskuntza euskalduna eskaintzeko", azpimarratu dute. Festa Bastidan egin arren, eskualdeko sei ikastetxe publikoetako ordezkariak ari dira antolatzen.

Argazkia: EHIGE 



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**

Argi hitz egiten dugu

AIZETI LOBO ETA MENDIALDEKO 52 BIZILAGUN GEHIAGO

(Erredakzioan euskaratutako iritzi artikulua)

Denbora bat daramagu komunikabideetan Eusko Jaurlaritzaren iragarki bat entzuten, arduraz erostera eta non erosten dugun kontziente izatera animatzen... *Erosi ondo hobeto bizitzeko* da aukeratutako leloa. Aurretik beste bat zabaldu zuten, herriko saltokietan erostera animatuz. Duela gutxi, baita ere, "Alderdi politiko horrek 0 kilometroko produktuaren alde egiten du" bezalako gauzak irakurri ditugu titularretan; politikarien hauteskunde-argazkiak ikusi ditugu, azokaz-azoka, oso landatarrak haiek.

Bitxia bada ere, politikari horietako batzuk eta haien alderdiak dira eskola-jantoki publikoetan hurbileko produktu ekologikoa eta jasagarria kontsumitzeko oztopoen erantzule nagusiak. Inguruko saltokietan erosteko aukerarik ematen ez duten horiek beraiek, eta gure ekoizleei zuzenean erosten uzten ez digutenak, "elikagaien segurtasunaren" izenean. Antza, soilik makro-cateringek bermatzen dute hori (prezioak adostegatik eta milioika euroko gailak ematen dituzten). ezartzeagatik zigortu zituzten).

Milaka kilometrora "elikagaiak" erosten dituzten enpresak, aurten, "kasualitatez" menuak makillatzen hasi zaizkigu. Egun batzuetan "baserriko fruta bat" sartuz, beste egun batean "animalien ongizatearen" haragia... hori bai, Poloniakoa. Hemen



Eskola jantokiaren ereduak erabaki nahi dute Mendialdean. ALEA

haragirik ez dagoela dirudi. Zer bermatzen duten ere ez dakigun zigor txikiak eta irudia zuzentzeko gainerako apaingarriak barne.

Hemen, Arabako Mendialdean, beste eskualde batzuetan bezala, hiru urte baino gehiago daramagu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailari eskatzen, besteak beste, eskola-jantokiak kudea ditzan, ekoizleen edota inguruko saltokien zuzeneko erosketa sustatu dezan, hurbileko sasoiko produktuei lehentasuna eman diezan... Baita beste aldarrikapen batzuk ere, jantokiko langileekin eta hauek hezkuntza-proiektuan duten garrantziarekin zerikusi handiagoa dutenak.

GASTEIZKO HAUR ESKOLA
BATEN UMEEN RATIO BERA
ESKATZEN DIGUZUE
MENDIALDEAN

Bi gauza argi utzi nahi dizkizuegu catering enpresei eta Eusko Jaurlaritzari:

Enpresei jakinarazi nahi dizuegu gure seme-alaben elikadurarekin jolastu eta gure agintarien konplizitatearekin familiei zein altxor publikoari dirua lapurtu ondoren, ez garela zuetaz fido; ez gaituzuela zuen markinarekin engainatuko. Ondo joan dagizuela!

Jaurlaritzari esan nahi diogu nahikoa dela *postureoa*. Predikatzen duenaren eredu izatea nahiko genuke, eta erosketan, kontratazioan eta abarretan duten erantzukizunaren eredu izatea. Ezin zaizkie erraztasun guztiak eman enpresa handiei, saltoki handiei, zerbitzu pila bat pribatizatu eta ondoren hipokrisiaz betetako iragarkiekin aurpegia zuritu dutenei. Lelo bat proposatzen dizuegu: *Utziguzue erosten bitzitzen jarraitu ahal izateko*.

Ezin dugu ulertu aurten Gasteizko Udalaren haur-eskoletan baimena izatea hiriburuko denda txikietan erosteko eta eskola publikoetan, ordea, ez.

Erraza da: utz gaitzazue egiten, ez izan oztopo. Hau ez da diruaren eta laguntza ekonomikoen kontua; horiek jasotzen dituztenek jasotzen dituzte eta doazen lekura doaz. Eta, batez ere, ez ezazue gure garapena sakrifikatu zuen interes alderdikoientatik. Ona dena ona da, proposatzen duenak proposatzen duela, eta eskualde honetan hainbeste paternalismoz, nagusikeriaz eta klientelismoz aspertuta gaude.

Ez digute balio hiriburuetak bulegoetan diseinatutako despopulazioaren aurkako planek ekartzen dituzten merkatariek, herrietan egunero bizi garen pertsonekin kontatu gabe egindako egitasmoek. Lurralde-orekaz jabetu nahi baduzue, ezin zarete zurrunik izan, horixe zarete eta. Gasteizko edo Bilboko haur-eskola baten umeen ratio bera eskatzen diguzue Mendialdeko haur-eskola bat irekita mantentzeko, ratio berberak ikasgeletan irakasleak mantentzeko eta abar.

Horrela ezin da. Hipokrisia gehiagorik ez, edo gure eskolak, merkataritza eta gure herriak astebururako eta hainbeste gustatzen zaizuen folklorerako geldituko dira. Herrikoak gara, eta hala izaten jarraitu nahi dugu. Nabarituko zenuten bezala, argi hitz egiten dugu, eta ez dugu uste dena

sinetsarazi nahi zaigun bezain zaila denik. Borondatearekin, ausardiarekin eta erabakitasearekin ia dena da posible, beraz, aurrera! ■■■

'Angelus', Diaz de Olanoren margolana

EDUARDO ARRIOLABENGOA

Irakurri berri dut Ignacio Diaz de Olanok gasteiztarrek 1899an pintatu zuen *Angelusaren otoitza soroan* margolana Arte Ederretako Museora bueltatu dela, Foru Aldundiaren Zaharberritze Zerbitzuak koadroak azalean zituen pitzadurak konpondu ondoren. Margolan ederra, gizona zein emakumea bere baitan bildurik otoitz egiten, idien lasaitasuna eta mantsotasuna, lautadaren paisaia atzeko aldean. Bikaina eta hunkigarria.

Kanpotik datorrenari harridura sortzen dio Arabako paisaiak: baserri gutxi batzuk eliza galant baten inguruan osatzen duten herrixkak, han eta hemen soroen artean sakabanatuak; agerian batzuk, muinoen artean ezkutatuak, besteak.

Pintoreak margolana pintatu zuen garaian asko ziren apaiza zuten herri txikiak; eta herri txikietan elizaren eragina nabaria zen baserritarren eguneroko bizitzan, koadroan agerian azaltzen denez. Elizak finkatzen zuen egutegia, iganderoko meza zen herrietako auzotarrak biltzeko abagunea eta apaizak bere sermoitxoaz azaltzeko aukera.

Gizartea fededuna zen, eta herri txikietako bizilagunak apaizaren kontrolpean bizi ziren. Ez da gaurko egoera ordukoa. Itzela izan da sekularizazioaren prozesua, pare bat belaunaldi nahikoak izan baitira gizarte erlijiosoa izatetik gizarte laikoa izatera igarotzeko. Hona hemen, bada, margolanak iradokitzen didan lehenengo gogoeta.

Idietatik traktorera nekazaritzak egin duen aldaketa da bigarren gogoeta. XIX. mendearen bukaeran, erdi autarkikoa zen etxaldea; seme-alaba askoko familiak, idiez goldatzeko lur eremu murritzua, ozta-ozta bizirauteko baserriak ematen zuen ekoizpena, izerdi eta lan gogor asko, gozatzeko egokiera gutxi. Etorriko ziren gero, XX. mendeko azken laurdenaren urteak, lursailaren kontzentrazioaren egitasmoa, nekazaritzaren mekanizazioa, autarkiaren desagertzea, herrietatik industrializatu berri zen Gasteiz hirira inmigrazioa, herrien hustea.

Ehun eta hogeitaz urte joan dira Ignacio Diaz de Olanok margolan hunkigarria pintatu zuenetik, eta Arabako herrixketan gertatu den izugarritzko aldaketa, ordea, azken bi belaunaldietan suertatu da. Elizak ez dute abaderik. Idiak, mandoak, astoak, desagertu dira. Garai hartako koadroaren atzeko aldean agertzen den paisaia zoragarria bakarrik dugu. Sinestezina, gertatu den aldaketa sakona. ■■■


BIDALI ZURE GUTUNA: erredakzioa@alea.eus

Gutunarekin batera, bidali zure izen-abizenak, herria, telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia.

ALEAk eskubidea du gutuna laburtzeko eta alea.eus-en argitaratzeko.

Espainiako Kongresurako hauteskundeak 2019 – Araba

Boto kopurua



Hauteskundeak, Gasteiztik harago

Apirileko hitzorduko emaitzak errepikatu dira Araban, Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan, eta EAJk, PSOEk, Elkarrekin Podemosek eta EH Bilduk diputatu bana lortu dute.

MIKEL SAENZ DE BURUAGA

Azken eserlekua lortzeko, PP, EH Bildu eta Elkarrekin Podemosen arteko lehia estua errepikatuko zela aurreikus zitekeen. Hala ere, oraingoan, alde handiagoarekin amaitu da norgehiagoka, eta beste behin ere ordezkari tzarik gabe gelditu da PP, Mari Mar Blanco zerrendaburu berriarekin. 25.318

bozka (%14'88a) lortu dituen arren, laugarren eserlekua lortzetik 2.047 bozetara gelditu da.

VOXen gorakadak eta Ciudadanosen hondoratzeak markatutako hauteskundeetan, bi hauek ere ordezkari gabe geratu dira Araban. Apirileko fenomeno a errepikatu da: eskuin unionistak ordezkari tzarik gabe jarraituko du Araban.

Igandetik bi egun eskasetara iragarri dute PSOEko Pedro Sanchezek eta Unidas Podemoseko Pablo Iglesiasek "koalizio gobernu aurrerakoia" osatzeko aurrehitzarmena, hilabetetako blokeoaren ostean.

Ikusteko dago alderdi bakoitzak, eta horren barruan, Arabako lau ordezkari ek, gobernu hori ahalbidetzeko jokatu ko duten papera.

Parte-hartze gutxiago

Parte-hartzea %68'20koa izan da Araban, hau da, 171.485 arabarrek bozkatu dute oraingoan. Apirilean %71'19koa izan zen, beraz, parte-hartze txikiagoa oraingoan.

EAJk eserleku bat lortu du 40.127 botorekin (%23'59). Mikel Legarda izango da Arabako ordezkaria Kongresuan, Aitor Esteban bozeramaile izango duen EAJren beste lau kidearekin batera. Asteartean,

Sanchez eta Iglesiasen arteko aurrehitzarmena ezagutu eta ordu gutxira, horren alde hitz egin du Estebanek: "Aspalditik eskatzen genuen, beharrezkoa zelako gehiengo bat osatzeko, lehen eta baita orain ere".

Bigarren indar bezala mantendu da PSOE eta ohiko eserlekua lortu du, 37.325 botorekin (%21'94). Guztira, 120 diputatu lortu ditu PSOEek eta, Arabatik azken hila-beteetan Espainiako Gobernuko Hezkuntza ministro izandako Isabel Celaa joango da Kongresura. Celaak momentu politikoa-ren garrantzia azpimarratu zuen igandean bertan: "Asko dugu jokoan: aniztasunean oinarritutako bizikidetzeta eta justizia soziala".

Unidas Podemos-ek diputatu bat lortu du Araban, 27.992 botorekin (%16'46). Juanxo Lopez de Uralde talde parlamentario morearen 35 diputatu-eta bat izango da. Ekologismoak markatu du Uralderen kanpaina, eta norabide berean kokatu du gobernu osatzeko aurrehitzarmena. "Konpromiso ekologista" azpimarratu du akordioan, eta lehentasunen artean "klima aldatetaren aurkako borroka: bidezko trantsizio ekologikoa, biodibertsitatearen babesa eta animaliei tratatu duina bermatzea" nabarmendu ditu.

EH Bilduk, apirilean bezala, lehia estuan zegoen azken eserlekua eskuratu du 27.364 bozekin (%16'09) eta apirilean baino 2.617 boto gehiago lortu ditu. Iñaki Ruiz de Pinedo Madrilera itzuliko da, bost diputatu- aurrekoan baino bat gehiago- osatutako talde parlamentario propioan. Ordezkaritza lortu duten alderdien artean, emaitzak hobetu dituen talde bakarra izan da EH Bildu. Hauteskunde gauean, Arnaldo Otegi-

hartu zuen hitza: "Bi erronka genituen eta biak bete ditugu: bigarren *trifaxitoari* irabazi diogu Araban eta Nafarroako eserlekua lortu dugu".

Herrietan, mapari buelta

Hiriburuaren pisuari buelta eman diote Arabako herriek, eserlekuak banatzen dituzten emaitza orokorrei erreparatuta.

Gasteizko emaitzak Arabako oso bestelakoak izan dira: lehen indarra, PSOE (30.499 boto eta %23,85); bigarrena, EAJ (27.054 boto eta %21,16); hirugarrena, Elkarrekin Podemos (21.697 boto eta %16,97a); eta azkenik, PP (21.189 boto eta %16,57a).

Elkarrekin Podemos, PP eta EH Bilduren arteko lehia horretan gakoa izan dira herri arabarrak. Izan ere, Gasteiztik kanpoko botoak zenbatzerakoan honako datuak ikus daitezke: PPK 4.129

boto lortu ditu herrietan, Elkarrekin Podemos-ek 6.295 eta, azkenik, EH Bilduk 9.545. Bitartean, Arabako eskuineko bozka unionista gehiena Gasteizko herritarren artean eskuratu dute.

EH Bilduk eta EAJk indar berezia lortu dute biztanle ugari-ko zenbait herritan. Hortaz, Gasteiz-ko PSOE-ek duen nagusitasunari buelta ematea lortu dute: EAJ, adibidez, nagusi da Aiaran, Amur-
rion, Artziniegan, Dulantzin, Guardian edo Laudion, besteak beste; EH Bildu Agurainen, Aramaion, Asparrenean, Urkabustaizen, Legutian edo Zigoitian.

PSOE-ri 300 boto baino gehiago eman dizkieten herri bakarrak, ordea, Iruña Oka eta Oion dira.

PPk eta Elkarrekin Podemos-ek indar gehiena hiriburuan lortu ohi dute, eta, hortaz, azken eserlekuaren banaketan, EH Bilduren botoek PPrenak gainditu dituzte.



ESANAK



BERNARDO ATXAGA

IDAZLEA

Iturria: Eitb

"Idazle arraroa izan naiz, bi hizkuntzatan jarduten duena; horrelako oso gutxi daude munduan"



IÑAKI L. DE FORONDA ETA MAITANE LOPEZ

ETXEBIZITZA SINDIKATUKO KIDEAK

Iturria: Berria

"Etxebizitza sindikatua proletarioek etxearen arazoari aurre egiteko tresna bat da"



AIARA ROMAN ETA JULEN ANDA

LAUDION HARROKO KIDEAK

Iturria: Aiaraldea

"LGTB+ mugimenduari bultzada emateko sortu berri dugu Laudion Harro"

ZENBAKITAN

Milioiak

Gasteizko Udalak datorren urterako aurrekontu-proiektua aurkeztu du; 19,02 milioi eurotan gainditzten du iazko aurrekontu luzatuaren zenbatekoa, 392,6 milioiraino iritsiz. Inbertsioen atalari dagokionez, honakoak dira Gorka Uraranen gobernuak aurreikusitako

egitasmo esanguratsuenak: Gasteiz Antzokia, Principal antzokia, Mendizorrotzeko estadioa eta Beti Jai pilotalekua eraberritzen hastea eta Ariznabarreko lurrazaleko aparkalekua. Tokiko gobernu batzarrek proiektua onesteak eman dio hasiera prozesuari, eta abenduaren 20an jarri da muga-eguna udalbatzak behin betiko onetsi dezan.

392,6

60

Urteak

Landazuri kiroldegia 60 urte egiten ditu, eta urteurrena ospatzeko hainbat jarduera antolatu ditu Gasteizko Udalak, ekipamendu horren historiarekin loturiko lagun, kirol klub eta gizarte eragileekin batera. Zehazki, argazki-erakusketa, mahai-ingurua eta ariketa-gelan ate irekietako zenbait saio egingo dituzte. 1958ko azaroan ipini zen kiroldegia leheneratu; Euskal Autonomi Erkidegoko leheneratu egin da.

20

Lekuak

Neguan ostatu emateko bitartekoa zabalik dago asteazkenetik, Gasteizko Harrera Sozialerako Udal Zentroan. Guztira, hogei leku ditu, 22:00etatik 08:00etara arte erabili ahaliko direnak. Hirian aldi baterako dauden eta bazterketa egoera larrian dauden pertsonen beharrei erantzuten die, nagusiki. Lo egiteko ostaturik emateaz gain, gosaria eskainiko diete, eta dutxa zerbitzua ere izango da zentroan bertan.

Elecnorreko langileek greba mugagabea egingo dute

Elecnor Telecomunicaciones enpresako langileak elkarretaratzeak egin ari dira enpresak "gutxieneko baldintza batzuk" negoziatzeko erakutsi duen "borondate ezaren aurrean". Azaroaren 22rako bosgarren greba eguna deitu dute, eta egoera aldatu ezean, protestaren jarraitu eta abenduaren 9tik aurrera greba mugagabeari ekin-go diotela ohartarazi dute.



Pasa den ostiralean Elecnor enpresako langileek egindako elkarretaratzea. ALEA

Pentsio duinak eskatuko dituzte larunbatean, Gasteizen

Larunbaterako, azaroaren 16rako, mobilizatzeko deia egin dute Hego Euskal Herriko pentsiodunek, eta manifestazioak deitu dituzte lau hiriburutan. Gasteizen, 18:00etan abiatuko da martxa Bilbo plazatik eta Andre Maria Zuriaren plazan amaituko da. Pentsio publikoen defentsa eta 1.080 euroko pentsio minimoa aldarrikatuko dituzte berriro ere kalera irteten diren pentsiodunek.

Eba Blancoren izendapena kautelaz etetea erabaki dute

Gasteizko Lehen Auzialdiko 7 zenbakiko Epaitegiko epaileak Eusko Alkartasuneko idazkari nagusi Eba Blancoren izendatzea behin-behinean etetea erabaki du, Maiorga Ramirez buru duen alderdi horretako sektore kritikokoek aurkeztutako salaketaren harira. EAren zuzendaritzak epailearen aurkako apelazio helegitea aurkeztuko duela iragarri du.

ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK
2020/2021 ikasturtea

LEARNING FROM REALITY

INGENIARITZA GOIERRI AZAROAK 28 OSTEGUNA 17:30 ARRASATE AZAROAK 30 LARUNBATA 10:30 ORONA IDEO ABENDUAK 14 LARUNBATA 10:30 BILBO URTARRILAK 15 ASTEAZKENA 18:00 HIRIETAN AURKEZPENAK: DONOSTIA ABENDUAK 11 18:00 Kursaal Jauregia EKINTZAILETZA BIDASOA AZAROAK 23 LARUNBATA 11:00 OÑATI AZAROAK 30 LARUNBATA 11:00 BILBO ABENDUAK 12 OSTEGUNA 18:00	ENPRESA KUDEAKETA BILBO AZAROAK 16 LARUNBATA 11:00 BIDASOA AZAROAK 23 LARUNBATA 11:00 OÑATI AZAROAK 30 LARUNBATA 11:00 HEZKUNTZA ESKORIATZA ABENDUAK 14 LARUNBATA 11:00 BILBO OTSAILAK 8 LARUNBATA 11:00 KOMUNIKAZIOA ARETXABAETA ABENDUAK 14 LARUNBATA 11:00 BILBO OTSAILAK 8 LARUNBATA 11:00 HUMANITATEAK BILBO OTSAILAK 8 LARUNBATA 11:00 GASTRONOMIA — Basque Culinary Center DONOSTIA ABENDUAK 14 LARUNBATA 10:30
--	--

Etorriko zarela jakinarazil
www.mondragon.edu/prest

Zatoz lagun Kantari!

Pasa den asteburuko entseguaren ostean, hilaren 16an eta 17an izango dira karaoke saioen grabazioak Dendaraban; Alearen webgunean 'streaming' bidez zuzenean ikusteko aukera egongo da.

MIRIAN BITERI

Kantariren abesti berriaren leloak ezin hobeto azaltzen du euskal karaokearen funtsa: *Zatoz lagun kantari, izan gaur abeslari, kantari zuekin, abestu gurekin, euskaraz amets egin.* Hori da, hain justu ere, ehunka gasteiztarrek asteburu honetan egingo dutena: euskaraz abestea, dantza egitea eta bereziki ondo pasatzea, hori baita ikuskizunaren helburu nagusia.

Aurten ere aurreikuspen guztiak gainditu egin dira Gasteizko 15 ikastetxetako 622 gaztetxok eman dutelako horretan izena; 137 taldetan

zeuden horiek banatuta. Baina parte-hartzaile kopurua mugatua da, 84 taldek baino ezingo dute parte hartu. Hortaz, zozketa egin behar izan dute.

Pasa den aste bukaerako entsegu saioen ostean, azaroaren 16an eta 17an egingo dira grabazioak Vital Kutxa Fundazioak Dendaraban duen aretoan. Arabako Aleak, GEU elkarteak, Goiena Komunikazio Taldeak, Gasteizko Udala eta Vital Fundazioaren laguntzarekin antolatu duten karaoke ikuskizuna larunbatean hasiko da, 15:30ean, eta igande iluntzean amaituko dira saioen

grabazioak. Denera, hamalau emanaldi grabatuko dituzte denbora tarte horretan.

Iker Gutierrez, aurkezle berria
Edizio honetan, berrikuntza bat baino gehiago dakar formatuak. Batetik, aurkezle berria izango du aurtengo Kantarik; Euskal Telebistako Bagoaz! saioan aritu den Iker Gutierrez arituko da oholtza gainean aurkezle lanetan, Amaia Txintxurretaren ordez. Bestetik, Beñat Arizabaleta, hau ere Bagoaz! saioan ibilitakoa eta antzerki ikasketak dituen, izango da bigarren aurkezle lanetan arituko dena. Baina, aurkezle aldaketaz gain,



Pasa den urteko saio bat amaitu aurretik parte-hartzaile guztiek orduko aurkezleekin batera ateratako argazkia. ESTI LANA O

badago beste berrikuntza esanguratsu bat: saioak kantu berria estreinatuko du.

Letra Amaia Txintxurretak berak egin du, eta Gauargi musika taldean harekin jarduten duen Asier Castro ermuarrak egin du musika. Hain justu, hango, Ermuko, Musical Arabako estudioan grabatu eta prestatu dute abestia, Humberto Esnaolarekin batera. "Dantzagarria izatea, itsaskorra; Kantari bukatzen denean denok dugu hortxe buruan amaierako kantu hori, eta era horretako abestia egin nahi izan dugu, gaztetxoei zuzendutakoa". Hitz horiekin



definitu du Txintxurretak abesti berria.

Castro ohituta dago abestiak moldatzen, baina hutsetik sortzen ez hainbeste. "Niretzako, erronka izan da, moldaketak egitea askoz errazagoa izaten da. Kantua hutsetik sortu behar zenez, apur bat gehiago kostatu zaigu. Harmoniarekin hasi ginen aurrena; gero, melodia; gero, letra... eta gustura geratu gara, ea zer erantzun ematen dion orain jendeak", adierazi du.

Kantu berriarekin lehengoaren arrakasta errepikatzea da helburua: "Oso harrera ona izan duen kantua izan da orain arte eduki dugun hori. Baina ikusten genuen zaharkituta geratu direla kantuaren doinuak". Kantu berrirako hiru proposamen egin zituen Asierrek: bat ska erakoa, beste bat poperoagoa eta hirugarrena dance erakoa edo modernoagoa. Azkeneko horren aldeko apustua egin dute: "Ikusita, adibidez, ska doinuak baditugula bestela ere; En Tol Sarmiento, Betagarri... talde horien kantuak baditugu karaokean, eta desberdinago izan nahian edo, hortik joango da kantu berria", azpimarratu dute egileek.

'Streaming' bidez

Bestalde, aurrekoetan egin den bezala, asteburuko entseguetan parte-hartzaile bakoitzari lau gonbidapen

BERRIKUNTZEKIN DATOR AURTENGO KANTARI: AURKEZLE ETA KANTU BERRIA IZANGO DITU

"GAZTETXOENTZAKO KANTU DANTZAGARRIA ETA ITSASKORRA EGITEN SAIATU GARA"

AMAIA TXINTXURRETA,
ABESTI BERRIAREN EGILEA

banatu zitzaizkion grabazio egunean euren gurasoak, familiakoak edota gertukoak debalde sar daitezen ikuskizuna ikustera. Dena dela, alea.eus webgunean Kantari Gasteizen zuzenean ikusteko aukera ere izango da, *streaming* bidez bere hasiera orrian emitituko baititu asteburuan egiten diren musika saio guztiak; eta sare sozialetan ere, ekimenaren jarraipena egingo da.

Gainera, ohikoa den moduan, grabazioaren ikuskizunean grabatzen diren bideoak eta parte-hartzaileei ateratzen zaizkien argazki guztiak, alea.eus/kantari webgunean eskuragarri egongo dira. Lehenengo argazkiak igoko dira, eta egunek aurrera egin ahala, bideoak. ■

"Hirukotea osatuta, taldea egonkortu dugu lan honetan"

TRISTTAN MURGI MUSIKARIA

ANAKOZ AMENABAR GASTEIZ

Jazz-folkaren bueltan ibili ostean, rockera jo du oraingoan Tristtan Murgik (Donibane Lohizune, 1982) Horeba taldearekin osatutako hirukoteak. Espazioa, denbora, bizitzaren zikloak, hizkuntza kolonizazioa edota *Me too* kanpaina ere ageri dira Sargia izeneko laugarren lanean. Laudion aurkeztuko dute lana – azaroaren 15ean bakarlarri moduan eta abenduaren 20an taldearekin –, eta aurretik, kontzertu artean, Alea FM saioan egin du geldialdia. **Norbere barrura begiratu eta arakatzeko musika aproposa izan daiteke hau...**

Bai, giro nahiko intimista du disko honek; nire baitan sakonki nituen sentimendu batzuk, zirrara batzuk, sentsazio batzuk nahi nituen argitara eman lan honekin. Alde horretatik, kanta guztiak hasten dira nahiko goxoki eta pixkanaka nahi ditudan lekura eramaten ditut.

Rockeroago, oraingoan?

Bai, bi eragin nagusiren bidez izan da hori. Batez ere,



'Sargia' diskoaren azala. TRISTTAN MURGI

egonkortu dugulako, sakondu dugulako gure hirukote taldea Greg Juvien (baxua) eta Cedric Lepinekin (bateria) batera. Erabaki genuen elkarrekin egitea diskoa, ni gitarra elektrikoarekin eta efektuekin, eta horrek eraman gaitu rock bide baterat; gainera, gaiak latzak direnez, eta aipatzen diren gauzak pixkat bortitzak... uste dut nabaritu izan zaigula argiki rocka.

Taldea sinplifikatzera, xumeagoa egitera jo duzuela esan duzu.

Konturatu ginen beste hiru diskoetan orkestrazio nahiko aberatsak egin genituela,

produkzio ederrak, tresna asko... Zuzenean oso zaila zen erreproduzitzea lehen, eta entsaioak programatzeko edota kontzertu proposamenak adosteko ere zaila. Gehiago oholtzari begirako disko bat egitea pentsatu genuen, eta familia bat bezala eginez. Hiruak egon gara lan hori ekoizten, mamia aurkitzeko, eta nabaritzen da badela gehiago banda baten moduko disko bat. **Denbora aipatzen da hainbat kantutan, 'Denborajale' eta 'Denbora eta espazio' tartean... Bada kezkatzen zaituen gaietako bat denbora?**

Ez dakit niri eragiten didan, baina bederen egoera orokor bat azpimarratu nahi nuen; gibeledu ikuspuntu batetik begiratuta. Hortik ikusten dut gizarteak zer nolako bidea hartzen duen denborarekin, nola aldatzen den...

Me Too mugimendua ere ekarri duzu, sexu jazarpenaren kontrako mugimendua. "Nornahi izan leike, zure aita, senarra edo bertze.

Nonahi izan leike, ganberan, bestan edo bertze..." dio kantak.

Batzuetan uste dugu lagun arrotz batek min bat egingo

digula edo ezagutzen ez dugun batek min emango digula; eta, azkenean, gure auzoa, gure senide bat izan daitekeela ohartzen gara, gure lagun bat... ez dela hain urrutira joan behar. Ez da mesfidantza proposatzeko, baina bai arriskuak gure inguruan izan daitezkeela nabarmentzeko; eta informatiboei kasu egin arren, norberak bere gogoeta egin behar duela.

Zer garrantzia dute letrak zure kantetan?

Sormen prozesuan beti iristen dira bukaeran. Hitzak pausatzen ditut gitarraren melodia gehienak eginak direnean, baina badakit gitarrarekin hasten naizenean konposatzen zer nahi dudan aipatu, zer gai jorratuko dudan kantu bakoitzean edo disko bat pentsatzen dudanean. Baina letrak pausatzeko nahiago dut zinez melodia bukatua izatea; hor nahiko naturalki pausatzen ditut letrak. Niretzat oso oso garrantzitsuak dira. Beti galdetzen didate nire erreferente musikalen inguruan edo entzuten dudanaren inguruan; esango nuke nire



Tristtan Murgi –erdian– Greg Juvien eta Cedric Lepinekin. TRISTTAN MURGI ETA HOREBA

eraginak gehiago direla irakurtzen ditudan liburuak, artikulua edo ikusten ditudan filmeak eta obrak. Horrek badauka zinez zentzu gehiago niretzat konposaketa prozesuan.

Zer esan nahi du "sargia" hitzak, diskoari izena jartzen dion hitzak?

Argira sartzeko modua da, sarbidea. Diskoaren azalean hiru liburu ireki ageri dira, hiru taldekideak gara, eta gibeletik argi bat igarotzen da, gu konturatu gabe. Lehendabiziko irizpidearekin konformatzen garela erakutsi nahi du, argi izpiarekin, aski sakondu gabe.

Bakarlari modura eta taldean eskaini behar dituzue kontzertuak. Nola aldatuko dira?

Oso ezberdina izango da. Bakarrik naizelarik jotzen ahal ditut nire kanta zahar batzuk edo berriak, inoiz argitaratu ez direnak, bertsio batzuk ere bai. Beste esperientzia bat da, intimistagoa. Gitarra klasikoa ere jotzen dut, folka... Eta bandarekin Sargia jotzen dugu osoki eta beste diskoetako kanta baten bat ere bai. Laudion izango gara lehenik, ostiral honetan, baina aurrerago Gasteizen ere jotzea gustatuko litzaiguke. ■■■

Erraldoiaren oinarrietara

Nerbioiko ur-jauziaren oinarriraino hurbil gaitzeko Delikako haizpitartean barrena; paraje zoragarria eta errekatxoak igarota iritsiko gara. Kontuz ibili behar da ibaian ur asko jaisten den egunetan.

ARGAZKIAK: PHOT.OK

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Komeni da Arabako Diputazioak aurreikusita duen ibilbide berdea eraikitzen hasi baino lehen Delikara hurbiltzea; izan ere, egungo xarma galduko du oraingo ibilbideak porlanaren eta ehunka bisitariren arrastoen azpian harrapatuta geratzen denean.

Bi gune lotzen ditu Delikako haizpitartean barrena eramaten gaituen ibilbideak. Batetik, herria bera; Amurrioko udalerriaren parte da egun, baina 1976. urtera arte, Arrastaria Haraneko lau herriek osatzen zuten udalerriaren hiriburua izan zen. Bestetik, Nerbioi ibaiaren jaiolekua; aski ezaguna da, batik bat Santiago mendian dagoen begiratokiari esker. Kasu honetan, aldiz, ur-jauzia erortzen den horma handiaren ondotik ikusiko dugu, behealdetik.

Zailtasunik ez

Bertara iristeko Delikako *Infierno* izeneko taberna-jatetxearen ondoan dagoen aparkalekutik aterako gara, eskuinetara ateratzen den ibaiaren bide paralelotik. Bost minutuz ibili ondoren, hesi batera iritsiko gara, eta berau igaro beharko dugu mendi-bide zabal batera iristeko. Ibilbideak ez dauka zailtasunik; izan ere, nahikoa da ibaiaren bidea

jarraitzea eta hainbatetan zeharkatzea. Gainera ibilbide ia laua da, eta oso desnibel txikia gainditu beharko da.

Behin arroilaren amaierara helduta, eta ur-jauzia erortzen den horma handiaren parean jarrita, oinarriraino hurbildu ahalko gara, harrietatik gora eginez. Kontuz ibili beharra dago ur asko jaisten den egunetan, ez baita erraza izango ibaia hainbat puntutan igarotzea, ezta irristakor diren harrietan gora egitea ere.


Hortaz, nahiz eta ur-jauzia bisitatzeko garai gomendagarriena euriteen ondorengo egunak izan – neguan eta udaberrian batez

IBILBIDE BERDEA ERAIKITZEN HASI BAINO LEHEN JOATEA KOMENI DA

ere, ura mendietatik jaitsi eta ibaiak normalean daraman kantitatea askoz handiagoa denean–, zaila gerta daiteke ibilbide osoa egitea. Hala ere, pena merezi du sikiera lehenbiziko kilometroak egitea, eta pagadi ederrez gozatzea.

Bertatik jaitsi ondoren, Urduñara edota Amurriora hurbiltzea da aukerarik onena, asko ikusteko baitago bi herrietan. ■





Delikako arroilaren ibilbidea

Kuadrilla: Aiaraldea.

Udalerrria: Amurrio.

Luzera: 15,5 kilometro guztira.

Bitxikeriak: 'Mari Ttipia Delikako arroilan' umeentzako ipuina idatzi zuten Mikel Tellagorrik eta Jose Ignacio Trekuk, parajea inspiratuta.

Araban da, baina... zer herri da argazkikoa?

IKA EUSKALTEGIA



ALEAren irakurle guztioi aukera eman nahi dizuegu urtero euskaltegian antolatzen dugun 'Araban da, bai, baina...' lehiaketan parte hartzeko. Datozen asteotan argazki zein galdera bana izango duzue astero ikusgai ALEA aldizkarian. Animatu eta parte hartu, ea erantzun zuzena ematea lortzen duzuen!

Hiru astean behin opari bat zozketatuko dugu asmatzen duzuenon artean, eta, horretaz gain, irabazleok Alea taldea osatuko duzue abenduaren 19an egingo dugun euskaltegien arteko finalean. ■■■



Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, eman erantzuna gure webgunean:

alea.eus/bereziak/ika31



Astebururako planak, albiste interesgarriak,
umeentzako hitzorduak, musika,
antzerkia, hitzaldiak...



Bilatu 'Euskararen Agenda' kanala **TELEGRAM** bidez



ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozetak



Gorbeia zinemarako Sarrera bikoitza

Gorbeia zinemetan edozein pelikula ikusteko sarrera bikoitz bat zozkatzen du ALEAk.

Parte hartu azaroaren 20a baino lehen; azaroaren 22ko ALEAn publikatuko dugu irabazlearen izena.



'Izan zaitez neu' kontzertua Bi sarrera

Garik, Libek, Anarik eta Jon Basagurenek kontzertua eskainiko dute Gasteizko Jimmy Jazz aretoan, azaroaren 28an, 20:00etan.

ALEAk bi sarrera solte zozkatuko ditu. Leocadia Zabalate elkarteak antolatutako kontzertuaren sarrerekin lortutako dirua ENACH elkartera bideratuko da. Parte hartu hilaren 20a baino lehen; azaroaren 22ko ALEAn publikatuko ditugu irabazleak.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak/



AGENDA

Azaroaren 15etik 21era

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak diruz lagundua.

Euskararen agenda

MUSIKA

AUDIO Agustin Alkhat

Arrastiak Faktorian zikloaren barruan.
Larunbata 16, 20:00etan, Aiaraldea Ekintzen Faktorian.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Zaldi urdina'

Dejabu Panpin, Axut eta Artedrama konpainien eskutik. Ander Lipus, Manex Fuchs, Urko Redondo, Miren Alcalá, Oier Zuñiga, Edurne Azkarate eta Olatz Beobide aktoreekin.
Asteartea 19, 20:30ean, Principal antzokian.

BERTSOLARITZA

LAPUEBLA DE LABARCA Bertso afaria

Aroa Arrizubieta eta Iñaki Viñaspre bertsolariekin.
Ostirala 15, 19:30ean, Goio Garrido upategian.

GASTEIZ Bertxoko sariketa

Paula Amilburuk eta Beñat Burgik zuzenduko dute saioa.
Osteguna 21, 20:00etan, Hala Bedi tabernan.

HAURRAK

GASTEIZ 'Itsasoko sekretuak'

Haurrentzako antzerkia, Irati eta Amaia abenturazaleekin.
Ostirala 15, 17:00etan eta 18:00etan, Arriaga gizarte etxean.



DON INORREZ

GASTEIZ Don Inorrez

Eskilarapeko Soinuak zikloaren barruan eskainiko du kontzertua Don Inorrez taldeak. 'Dardara hura' izeneko lan kolektibo berriarekin helduko dira Gasteizera Imanol Ubeda, Fernando Neira, Ruben Caballero eta Karlos Aranzegi.
Osteguna 21, 19:30ean, Falerina tabernan.

AUDIO Eskulan saioa

Sorgin Zapatuak zikloaren barruan. 5 urtetik gorako haurrentzat. Kirikiño taldearekin.
Larunbata 16, 17:30ean, Lamuzan.

HITZALDIA

ARAI 'Harria. Maitasun istorioa'

Iñaki Perurena harrijasotzailearekin.
Larunbata 16, 19:00etan, udaletxean.

GASTEIZ 'Erromintxela'

Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituen inguruko zikloa. Oscar Bizarraga Kale Dor Kayiko elkarteko kidearekin.
Asteazkena 20, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

BESTELAKOAK

GASTEIZ GEUrekin mendira

Gorbeia mendira ibilaldia.
Igandea 17, 08:30ean, Mendizorrotzeko aparkalekutik.

Jimmyjazz gasteiz

AZAROA

Os. 15 FRANK CARTER & THE RATTLESNAKES + KID KAPICHI

Lr. 16 LOS BARONES

Ig. 17 ALEX CLAVERO

Ot. 21 JULIÁN MAESO

Os. 22 HARRESIA ERAITSIZ

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

LEOCADIA ZABALATE ELKARTEAK AURKEZTEN DU

IZAN ZAITEZ NEU

ELKARTASUN KONTZERTUA ENACH ASOCIACIÓN-EN ALDE



GARI LIBE ANARI JON BASAGUREN

AZARDAREN 28AN JIMMY JAZZ ARETOAN

ATEAK 20:00 - KONTZERTUA 20:30

SARRERA 12.00€

LANGABE ETA IKASLEAK 8.00€ / SARRERA SOLIDARIDA 18.00€ [WEB-EAN BAKARRIK]

©2016

SALMENTA: ZULDA, VSD, WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

BABESLEAK

LAGUNTZAILEAK



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

LABORAL
kutxa



geu
ELKARTEA

radio
vitoria

Landazuriko kiroldegiak **60** urte bete ditu



**Argazki-erakusketa, world kafe,
ateak zabaltzeko egunak,
mahai-ingurua...**

Zure zain gaude